

GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)

2012-07-19ko OSOKO BILKURAREN AKTA

Eusko Jaurlaritzaren egoitzan
Lakua II (6. aretoa)
Vitoria-Gasteiz

DEIALDIA EGITEN DUENA:

Lehendakaria: Gemma Zabaleta Areta andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua.

LEHENDAKARITZA ETA IDAZKARITZA:

- Lehendakaria ez denez bertaratu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren **jarduneko lehendakaria** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako sailburuorde **Alfonso Gurpegui Ruiz** jauna izan da.
- Kontseiluaren lehendakariak izendatuta, **Iñaki Serrano Lasa** jaunak, Gizarte Gaietako Zuzendaritzari atxikitako teknikari batek, jardun du **idazkari** gisa, Angel M. Manero González jauna ez baita etorri.

BILDUTAKO KIDEAK:

Iñaki Múgica Flores jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

Miren Amilibia Urcelay andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Gaietako Goi Ikuskaritzako zuzendaria. (Lan Zuzendaritza).

Miguel González Martín jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren Immigrazioko zuzendaria.

Celina Pereda Riguera andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailaren Droga Gaietako zuzendaria.

Leyre Sologuren Etxenagusia andrea.- Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Programen teknikaria.

Cristina Madinabeitia Olariaga andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Turismo Zuzendaritzako teknikaria.

Ander Rodriguez Lejarza jauna.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko diputatua.

Paloma Aranceta Arilla andrea.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Sergio Murillo Corzo jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusia.

Izaskun Uriagereka Legarreta andrea.- EUDEL (Mungiako alkatea).

Izaskun Landaida Larizgoitia andrea.- EUDEL (Ugao-Miraballesko alkatea).

Dorleta Goiburu Muruaga andrea.- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte).

Gotzon Villaño Murga jauna.- EAEko Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak.

Roberto Vidal Failde jauna.- Euskadiko Gizarte-hezitzaileen Elkargoa.

Karmele Acedo Gil andrea (Servicios Sociales Integrados S. Coop).- Euskadiko Lan Elkartearen Kooperatiben Konfederazioaren ordezkaria.

Amaia López Iriondo andrea.- CONFEBASK (Euskal Enpresarien Konfederakuntza).

Idoia Intxaurbe Fernández andrea.- ELA sindikatua.

Jesús García de Cos jauna.- Euskadiko UGT.

Inmaculada Mujika Flores andrea (Aldarte Elkarte).- Gay, lesbiana eta transexualen erakundearen ordezkaria.

Josu Gago Palacios (Agintzari Koop E.).- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Ignacio Loza Aguirre jauna (FEVAS).- Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkartearen Euskal Federazioaren ordezkaria.

M^a. José Cano Mesías andrea (FEDEAFES).- Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkartearen Federakuntzaren ordezkaria.

Aitor González Angulo jauna (ONCE Euskadi).- Zentzumen urritasunaren eremuan lan egiten duten EAEko erakundearen ordezkaria.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna (EUSKO FEDERPEN).- Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioaren ordezkaria.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTENAK

Gemma Zabaleta Areta andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua (GZEKren lehendakaria).

Ignacio de la Puerta jauna.- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitza zuzendaria.

Mariola Serrano Argüeso andrea.- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako zuzendaria.

Felisa Piedra Gao andrea.- CCOO Euskadi sindikatua.

Consuelo Ordejón Caballero andrea (Gizarterako Elkarte).- Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordearen ordezkaria.

BERTARATU EZ DIREN KIDEAK

Gizarteratzearen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko **kide bat**.

Osasunaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko **kide bat**.

Hezkuntzaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko **kide bat**.

Kulturaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko **kide bat**.

Giza Eskubideen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko **kide bat**.

Ekonomiaren eta Plangintza ekonomikoaren alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko **kide bat**.

Kide bat Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa (Lan eta Gizarte Ekintzako Batzordea).

Kide bat EAEko udalen ordezkari gisa (EUDEL).

Hiru kide enpresaburu-erakundeen ordezkari gisa (CONFEBASK).

Kide bat LAB sindikatuaren ordezkari gisa.

Kide bat gizarteratzearen eta gizarte-baztertze handiaren arloan lan egiten duten erakundeen ordezkari gisa (EAPN Euskadi).

Kide bat droga-mendetasunen arloko prebentzioan eta gizarteratzean lan egiten duten erakundeen ordezkari gisa (Hiesaren aurkako Arabako Batzordea).

Kide bat familiaren esparruan lan egiten duten erakundeen ordezkari gisa (HIRUKIDE-Euskadiko Familia Ugarien Elkarteen Federazioa).

Kide bat etorkinei laguntzen dien Euskadiko GKEen Euskal Koordinakundearen ordezkari gisa ("Harresiak Apurtuz").

Bokal bat Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkari gisa.

Kide bat Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailearen ordezkari gisa ("Elkartean").

KONTSEILUAK GONBIDATUTA BERTARATU DIREN BESTE BATZUK (KIDE EZ DIRENAK):

Luis Pérez Fernández jauna.- Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako psikologo-elkargoen ordezkaria.

Ibán Arrien Celaya jauna.- Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren ordezkaria.

.....

JORRATUTAKO PUNTUAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

Quorum nahikoa izanik, lehen deialdian Osoko Bilkura behar bezala eratu da, aurretik idazki bidez bidalitako deialdian adierazitako tokian eta egunean. Bilkura 2012ko uztailaren 19ko goizeko 10:15ean hasi da, lehendakariak finkaturiko honako **gai-zerrenda** honi jarraikiz:

1. Aurreko bileraren akta onartzea (2012-02-17).
2. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako jardunei buruzko informazioa.
3. EAeko Gizarte Zerbitzuei buruzko II. Txostenaren gomendioak onartzea.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
5. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hitzarmen-araubidea arautzen duen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
6. Gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeen gizarte-intereseko aitortpena arautzen duen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
7. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-fitxaren eredia eta gizarte-diagnostikoaren tresna onartzen dituen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
8. Gizarte-bazterketaren balorazioko tresna onartzen duen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.

9. Foru-aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duen ekainaren 17ko 114/2008 Dekretua aldatzen duen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.
10. Gizarte Zerbitzuen Mapari buruzko informazioa.
11. Eskariak eta galderak.

.....

Jarduneko lehendakariak, bertaratu diren guztiak agurtu ondoren, gai-zerrendan ageri diren gaiak garatzeari ekin dio.

1. puntua.- Aurreko bileraren akta onartzea: 2012ko otsailaren 17ko Osoko Bilkura.

Bidalitako behin-behineko txostenari oharririk egin ez zaionez, 2012ko otsailaren 17an egindako aurreko Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

2. puntua.- Gizarte Zerbitzuetako 12/2008 Legearen garapenera eta aplikaziora bideratutako jardunei buruzko informazioa.

• **Iñaki Múgica** Gizarte Zerbitzuen zuzendariak gaurko data daraman (uztailaren 19a) “Gizarte Zerbitzuen Legea garatzea eta aplikatzea” deituriko dokumentua erreperasatu du. Dokumentu horretan honako atal hauei buruzko egoera laburbiltzen da:

1. Gizarte Zerbitzuen Mapa eta plan estrategikoa.
2. Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa
3. Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa
4. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
5. Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema
6. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Itun Araubidea
7. Bitartekarien Erregistroa
8. Telelaguntza-zerbitzu publikoa
9. Gizarte-fitxaren eta gizarte-diagnostikoaren tresna tekniko komunak; gizarte-bazterketaren balorazioa
10. Gizarte Zerbitzuen Erregistroa
11. Emandako diru-laguntzak
12. NAELen homologazioa
13. Gizarte-gastua
14. Desgaitasuneko baliabideen aurreikusitako arau-garapena

Aurreko puntuak jasotzen dituen dokumentua **I. eranskin** gisa txertatzen da.

3. puntua.- EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko II. Txostenaren gomendioak onartzea.

• **Alfonso Gurpeguik** azaldu du Ondorio eta Gomendioen Kapituluari jasotzen diren proposamenak Kontseiluko kideei bidali zitzaizkiela, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari hari buruzko iradokizun eta oharpenak helaraz zenkizkioten. Baina, ez da helarazi inolako ekarpenik; hori dela eta, onartu egin da Ondorio eta Gomendioen Dokumentua.

Hitz-txanda da ireki da, eta hainbat lagunek parte hartu dute:

- **Txema Odriozola jaunak** (Eusko Federpen) galdetu du ea zenbateraino erantzungo zaien Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretuko eta Etxez Etxeko Laguntza-zerbitzuaren Dekretuko gomendioei, programak eta aurrekontuak egiteko unean. Haren ustez, garrantzia eman beharko litzaioke hurbiltasuneko arreta-ereduari, hala nola Etxean Ondo proiektuari. Izan ere Helduen Federazioak proiektu horren ardatzak sendo babesten ditu: pertsona-etxea-ingurua.
- **Alfonso Gurpeguik** esan du gomendioak administrazio eta erakunde guztiei zuzenduta daudela eta Eusko Jaurlaritzak kontuan izango dituela. Izan ere, etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren negoziazioan beste zerbitzu batzuekin osatzeko proposamenak egin dira.
- **Txema Odriozola jaunak**, berez, etxean laguntzeko eredia sistema garestiena dela baztertzen du. "Etxean Ondo programaren ebaluazioa ez dugu egin oraingoz, eta aldeaz aurretik programa horri gutxieneko konfiantza eman behar zaio" (aipamen hori egiten du txostenean agertzen baita Araban plaza bakoitzaren kostua 41,923 €koa dela, eta batez beste 32 €koa).
- **Alfonso Gurpeguik** erantzun dio eraginkortasun eta kostuen gaineko ikerlanak egiten ari direla.
- **Sergio Murillo jaunak**, Bizkaiko Foru Aldundikoak, azaldu du txosteneko 22. eta 23. orrialdeetatik gomendio hau ondorioztatu beharko litzatekeela: "Enplegu-sistemen eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinatzea handitzea".
- **Alfonso Gurpeguik** adierazi du hurrengo txostenean sartuko dela.

4. puntua.- Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** azaldu du diru-laguntzei buruzko dekretu berriak ezin izan dituela jaso hirugarren sektorearen ekarpen guztiak; hortik dator, inondik ere, proiektuen lurraldez gaindiko izaera.
- **Iñaki Múgicak** dekretu berrian sartu diren aldaketak berrikusi ditu; aldaketa horiek, hain zuzen ere, eragina izango dute diru-laguntzen kudeaketa eraginkorra hobetzean eta banaketa proportzionalago batean. Dekretuaren aldaketa nagusiak honako hauek dira: drogamenetasunen eremuari egindako erreferentziak ezabatzea, orain Osasun eta Kontsumo Sailean txertatu baitira; estatu mailako erakundeei ere leku ematen zaie, haien jardute-eremua Estatua bada, baina ordezkari finkatuak badituzten Euskal Autonomia Erkidegoan; finantza-gastuak muga batzuekin diruz laguntzeko aukera txertatzen da; Balorazio Batzordeak ezarriko du jarduera bat diruz lagundua izateko beharrezko den gutxieneko puntuazioa; eman behar den laguntza kalkulatzeko, banaketa finkoko eta banaketa aldakorreko fase biko metodologia ezartzen da (era horretan ziurtatzen dira gutxieneko kalitate teknikoa eta diru-laguntza lerro hauek sustatzen dituzten irizpideekiko egokitzapena); ebazteko epea, azkenik, 4 hiletik 5era zabaltzen da. Era berean, honako hau adierazi du: deialdia egiteko agindua datorren urtean lehenago ateratzea, betiere, dekretua onartzearen eta aurrekontu-proiektuaren mende egongo da.
- **M^a José Cano andreak** (FEDEAFES) eskertu du aurten apirilera ezagutzen zirela emandako diru-laguntzak. Dekretuan hobetzeko modukoak diren alderdi batzuk aipatzen ditu: ez da aitaz lurralde gaindiko izaera; oreka falta da toki-erakundearen eta hirugarren sektorearen artean; emandako laguntza aurrekontuaren % 80tik gorakoa ezin izanak proiektu batzuk hipotekatu ditzake; ebazteko epea hil bat luzatzen da. Azkenik, eta espediente honen izapidetzean kontuan hartua izan dadin, ekarpen-dokumentu bat bidaltzeko asmoa agertu du.

• **Jarduneko lehendakariak**, beste inork txanda eskatu ez duenez, emandakotzat jotzen du dekretu honi buruzko GZEKren txostena: Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretua.

5. puntua.- Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren hitzarmen-araubidea arautzen duen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.

• **Alfonso Gurpeguik** azaldu du laugarren zirriborroa dela hau eta asmo politiko argia duela: lehenetasuna ematea gizarte-intereseko hirugarren sektoreko erakundeei.

Ekonomia-itunaren araubidea kontratuen legeriara atxikitzeari buruz dagoen eztabaida juridikoa alde batera utzita, Gizarte Zerbitzuen Legeak figura hori aurreikusten du, eta garatu egin behar da.

• **Txema Odriozolak** (Eusko Federpen) eskatu du, foru-aldundien eta Eudelen jarrera gorabehera, dekretu-proiektua txeraz tratatzeko, hirugarren sektoreak gogor lan egin baitu horretan eta ados baitaude jaso zuten oinarri juridikoarekin. Haien iritziz, funtsezkoa da sisteman irabazi-asmoko erakunde batzuk sartzea.

• **Amaia López andreak** (CONFEBASK), EGKren irizpenarekin bat etorrita, eskatu du nahitaezko txostenean txertatzeko aurretik bidalitako alegazio-idazkia (*II. eranskin moduan txertatzen da*). Laburbilduz, haren ustez dekretua gehiegi lerratzen da irabazi-asmorik gabeko erakundeetara.

• **Iban Arrien jaunak** (Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala) eskatu du baldintza gisa sartzea titulazio akademiko ofizial bat eta datu “profesionalizante” gehiago edukitzea. Ildo horretatik, artikulatuan aldaketa batzuk txertatzeko eskatu du. Aldaketok sailari helaraziko dion idazki batean jasotzen dira.

• **Ander Rodríguez jaunak** (Gipuzkoako Foru Aldundia) berriro esan du dekretu-proiektuak ebatzi beharreko ziurgabetasun juridiko bat duela eta hori beste bertsio batekin konpondu daitekeela. Zenbait kasutan, hitzartzeko arazo batzuk egoten dira, eta irabazi-asmoko zerbitzu-merkatura jo behar izaten da. Zenbait baliabideetan, hala nola adingabekoen zentroetan, ezinezkoa da dekretua betetzea. Azkenik, proiektuari buruz hitz egiten jarraitzeko eta ahalik eta adostasunik handiena lortzeko gonbita egin du.

• **Jesús García de Cos jaunaren** iritziz (Euskadiko UGT), Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren proposamenek profesionaltasun-ziurtagiria dutenak salbuesten ditu.

• **Inmaculada Mujika andreak** (Aldarte elkarte) adierazi du, era berean, zenbait eremutan, tituluak baino gehiago, esperientzia, gaitasuna eta prestakuntza baloratu behar direla.

• **Sergio Murillo jaunak** (Bizkaiko Foru Aldundia) argitu du alegazio-idazki bat aurkeztu dutela baina proiektuaren izapidetzea babesten dutela.

• **Dorleta Goiburu andreak** (EUDEL) proiektuaren legezkotasunari buruzko zalantzak ditu, lehia askea eta udal-autonomia urratzen baititu.

• **Paloma Aranceta andreak** (Arabako Foru Aldundia) adierazi du eurak ere ez daudela proiektuaren xedearen aurka, baina bai formari dagokionez. Eskumen-inbasio batzuk egon litezke.

- **Alfonso Gurpeguik** lan egiten jarraitzeko borondatea eskertzen du. Zalantza juridikoak gorabehera, akordio politiko bat dago hirugarren sektoreari lehentasuna emateko, bere ibilbideagatik, kaudimen-, kalitate- eta gaitasun-baldintza batzuk eskaintzen badituzte.

• **Jarduneko lehendakariak**, beste inork txanda eskatu ez duenez, emandakotzat jotzen du dekretu honi buruzko GZEKren txostena: Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren hitzarmen-arabidea arautzen duen Dekretua.

6. puntua.- Gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeen gizarte-intereseko aitortpena arautzen duen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena.

- **Iñaki Múgicak** azaldu du bigarren bertsioa dela eta alegazioetarako aldi bat irekiko dela.
- **Amaia López andreak** (CONFEBASK) adierazi du gizarte-intereseko aitortpena balio erantsia dela sistemaren kalitatean, baina baldintza batzuk, haien iritziz, bereizkeriazkoak dira eta alegazioak aurkeztuko dituzte.
- **Aitor González jaunak** (ONCE Euskadi) eta **Txema Odriozolak** (Eusko Federpen) ñabardura batzuk egin dizkiote artikulatuari, nahiz eta kontuan izan behar den GZEK-ko kideen eskuetan dagoen bertsioa ez dela behin betikoa, zeren eta oraindik ez baitu gainditu zerbitzu juridikoen txostenaren iragazkia eta aldaketa gehiago egiten ari baitira.

• **Alfonso Gurpeguik** nahitaezko txostena mahai ganean uztea proposatu du. Behin betiko testua zehazten denean, Kontseiluko kideen irizpenetik pasaraziko da, eta alde zuzeneko alegazioak egiteko aukera ere egongo da.

7. eta 8. puntuak.- Dekretu hauei buruzko nahitaezko txostenak egitea:

- **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-fitxaren eredia eta gizarte-diagnostikoaren tresna onartzen dituen Dekretua.**
- **Gizarte-bazterketaren balorazioko tresna onartzen duen Dekretua.**

- **Alfonso Gurpegui** azaldu du, profesionalen prozesu parte-hartzaile baten ondoren, tresna tekniko batzuk prestatu direla; horien onarpenak, bestalde, dekretu banaren itxura hartu du. Erakundeek erabiltzeko prestatu diren honako aplikazio informatiko hauek dira: gizarte-fitxa (nahitaez bete beharrekoa, informazio-sistema elikatuko baitu), gizarte-diagnostikoaren tresna eta gizarte-bazterketaren balorazioko tresna.
- **Sergio Murillo jaunak** (Bizkaiko Foru Aldundia) eskatzen du Gizarte Fitxaren 1. eranskineko 5. puntua (Helbideari buruzkoa) Diru-sarrerak Bermatzeko Legean bezala sailkatu edo katalogatu dadila.
- **Jesús García de Cos jaunak** (Euskadi UGT), gizarte-bazterketaren balorazioari dagokionez, beste idazketa bat proposatzen du: 5. orrialdean: “Lan-egoera” (Langabezia, enplegu ezegonkorra edo iraupen luzeko langabezia) agertu beharko litzateke, eta ez “Ekoizpeneko parte-hartzea: lan-merkatuan”. Hori guztia, aurkeztu dituzten alegazioen arabera, eta horiek **3. eranskin** gisa txertatzen dira.

• **Jarduneko lehendakariak**, beste inork txanda eskatu ez duenez, emandakotzat jotzen du dekretu honi buruzko GZEKren txostena: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-fitxaren eredia eta gizarte-diagnostikoaren tresna onartzen dituen Dekretua eta Gizarte-bazterketaren balorazioko tresna onartzen duen Dekretua.

9. puntua.- Foru-aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duen ekainaren 17ko 114/2008 Dekretua aldatzen duen Dekretuari buruzko nahitaezko txostena ematea.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** dekretuaren aldaketa honi buruzko aurrekariak azaldu ditu, adoptatzaileen adinaren baldintza ezabatzearen ingurukoa, batik bat. Egokitasunaren balorazioan subjektibotasun handiagoa egon daitekeelako kezka aurrean, Egokitasun Adierazleen Aholku Batzorde Tekniko bat egongo dela aurreikusi da.
- **Paloma Aranceta andreak eta Sergio Murillo jaunak** berretsi egin dituzte alde aurretik beren foru-aldundiek, Arabakoak eta Bizkaikoak, aurkeztutako alegazioak.
- **Ander Rodríguez jaunaren** (Gipuzkoako Foru Aldundia) iritziz, arau-aldaketa hau errore tekniko bat da, subjektibotasunera bulkatua baitago, eta, gainera, batzorde teknikoa osatu gabe sartuko da indarrean. Aldaketa hori birplanteatzeko eskatu du, eta adin-aldea igotzearen gaineko eztabaida berriz irekitzeko, baina ez muga-adina ezabatzearen gainean.

• **Jarduneko lehendakariak**, beste inork txanda eskatu ez duenez, emandakotzat jotzen du dekretu honi buruzko GZEKren txostena: Foru-aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duen ekainaren 17ko 114/2008 Dekretua aldatzen duen Dekretua.

10. puntua.- Gizarte Zerbitzuen Mapari buruzko informazioa.

- **Gizarte Gaietako sailburuordeak** zehaztu du “*ez litzatekeela informazioa, baizik ere, benetan, nahitaezko txostena ematea*”. Eudelek esan du ez duela sakon aztertu gaia, uste baitzuten informatzeko gai bat baino ez zela honako hau. Alfonso Gurpeguik berriro esan du edukia aurretik ere landua zela erakunde arteko organoan.

Erabaki zen Mapak erreferentzia egitea azpiegitura behar zuten Zerbitzuen Zorroko zerbitzuei, bai eta laguntza-zerbitzuari ere. 2016rako aurreikuspenek beteta eduki behar dute gutxienez 2009ko batez bestekoa.

- **Sergio Murillo jaunak** (Bizkaiko Foru Aldundia) eskatu du eurek bidali zuten dokumentu teknikoa txertatzeko, batez bestekoetan alde batzuk baitaude.
- **Ander Rodríguez jauna** (Gipuzkoako Foru Aldundia) ez dago ados planteamenduarekin eta 2016an 2009koa mantentzearen helburuarekin.
- **Txema Odriozola jaunak** (Eusko Federpen) 4. orrialdeko printzipio gidariak nabarmendu ditu: unibertsaltasun-printzipioa, hurbiltasuna arretan –landa-eremuan ere bai– eta eskatu du “Arretako ikuspegi komunitarioa” lerro gidari bat izatea.

• **Jarduneko lehendakariak**, beste inork txanda eskatu ez duenez, emandakotzat jotzen du Gizarte Zerbitzuen Mapari buruzko GZEKren txostena:

11. puntua.- Eskariak eta galderak.

M^a José Canok (FEDEAFES) eta **Txema Odriozolak** (EUSKO FEDERPEN) familia eta kolektiboek Mendekotasun Legearen mozketarekin duten kezka azaldu dute, eta euskal erakunde publikoak mozketarik gabe mantentzeko lerroan segitzera animatu dituzte.

Alfonso Gurpeguik adierazi du jarrera bateratua lortzen ahaleginduko direla erakunde arteko organoaren baitan. Lege-erreforma hau funtsezko aldaketa da, eta, gainera, ustekabeko batzuk daude eta haien berri ez da eman Lurralde Kontseiluan.

Ander Rodríguezek (Gipuzkoako Foru Aldundia) adierazi du alderdi kaltegarriak ez direla aplikatuko eta bateraezintasun-erregimen berarekin jarraituko dutela. Bizkaiko Foru Aldundiak ere xedatu du prestazioak berdin ematen jarraituko dutela.

Karmele Acedo andreak (Servicios Sociales Integrados S. Coop) ELZren Dekretuari buruzko zirriborroa eskatu du, zeina lantaldeak amaitutzat ematen duenenean bidaliko baitzaio.

Eta eskari edo galdera gehiagorik ez dagoenez, 2012ko uztailaren 19ko 12:15ean amaitutzat eman da bilkura.

IDAZKARIA

O.E.
Jarduneko LEHENDAKARIA
